

GLOBALIZAZIOA ETA ALTERGLOBALIZAZIOA HIPERPOLITIKAREN ARDAN*

 **IGNACIO AYESTARRAN**

A- Hiperpolitikan 3 fenomeno bereizi behar dira:

1- Mundializazioa

Analista frantziarrek *mondialisation* esaten diote. Komunikazioen, lotura kulturalen eta migrazio-mugimendu masiboen planetarizazioari deitzen zaio: garraioaren eta komunikazioen iraultza, energia elektrikoak sustatua, XIX. mende amaieran eta XX. mendean. Bere ontologia: espazioa eta denbora fisikoak laburtu egiten dira abiaduraren azelerazioaren bidez. Hedadura: planeta osoa.

2- Globalizazioa

Anglosaxoiek *globalization* esaten diote: globaltasun espazial-tenporal baten sorkuntza, mundializazioaren haraindian, nahiz eta mundializazioan bertan oinarritu eta sostengatu. Mundializaziorik gabe, energia elektrikoak eta garraioek ez lukete egun duten eraginkortasuna izango. Gakoa teleteknologiaren aurkitzea da. Bere ontologiaren zati handi bat fisikoa da (azpian duen mundializazioaren oinarri osoa), baina beste zati bat birtuala da: ziberespazioa-ziberdenbora. Ziberespazioa jada ez da fisikoa: Argentinako norbaitekin eta Australiako beste batekin txateatu dezaket. Eta, txateatzen dudana bitartean, ez nago ez Argentinan eta ez Australian ere. Espazio berri batean aurkitzen naiz, zibernetikotasunaz hitz egin daiteke. Ziberdenbora ziberaldibereketasunetik edo bat-bateketasunetik oso hurbil dago. E-posta bidezko mezu bat 300 hartzaileri igorri diezaiekete segundo-hamarren gutxi batzuetan. Ontologia hori ezezaguna izan da orain arte, ez da mundu fisikoarena.

OHARRA.- Kultura eta hizkuntza aniztasuneko garaiotan, gauza bitxia gertatzen da gertakari soziokulturalen planetarizazioa aipatzeko erabiltzen ditugun hitzekin; izan ere, termino bakoitzak bere aztarna linguistikoa eta kulturala du. Esaterako, frantsesez "mondialisation" terminoarekin ingelesezko "globalization" terminoa itzuli ohi da, baina azken urteotan gaiari buruz idatzi diren saiakera anglosaxoietan ikuspegi "globalagoa" ("mundialetik" haratago) eman zaio terminoari, informazio-teknologiekin eta ekonomia berriarekin lotua, frantsez terminoak duena baino. Horregatik, testu honetan diferentzia etimologiko-semanticoko horri eusten saiatu gara, nahiz eta badakizun une jakin batzuetan terminoak elkar-gainka eta nahasita dabiltzala. Guztiarekin ere, gure buruari galde diezaiokegu, ea berdin ulertzen den globalizazioa europar kulturaren (frantsesez, esaterako) eta ipar-amerikar kulturaren (ingelesez, esaterako)?.

3- Balioen unibertsalizazioa

Eskubideak unibertsalak dira (gizakiarenak, haurarenak, emakumearenak, adinekoarenak; etxebizitza baterako eskubidea, lanerako eskubidea, adierazpen-askatasunerako eskubidea). Atemporalak eta kulturaz haraindikoak dira, duinak direlako eta gizakitzat hartzen dugun izaki orori dagozkiolako. Hala eta guztiz ere, eskubide unibertsalak historikoki aldarrikatu dira. Bultzada handia jaso zuten XVIII. mende amaieran (Estatu Batuetako Independentzia Deklarazioa eta autoritarismo monarkikoaren aurkako Iraultza Frantseseko Hiritarraren Eskubideen Deklarazioa), nahiz eta horien finkapena XIX. mendearen bigarren erdian (kapitalismo industrial basatiarekin lehian), XX. mendean eta XXI. mendetik daramagun denbora honetan gauzatu den (kolonialismoaren, totalitarismoaren, arrazakeriaren, militarismoaren, matxismoaren, esplotazio ekonomiko-

OHARRA.- Kultura eta hizkuntza aniztasuneko garaiotan, gauza bitxia gertatzen da gertakari soziokulturalen planetarizazioa aipatzeko erabiltzen ditugun hitzekin; izan ere, termino bakoitzak bere aztarna linguistikoa eta kulturala du. Esaterako, frantsesez "mondialisation" terminoarekin ingelesezko "globalization" terminoa itzuli ohi da, baina azken urteotan gaiari buruz idatzi diren saiakera anglosaxoietan ikuspegi "globalagoa" ("mundialetik" haratago) eman zaio terminoari, informazio-teknologiekin eta ekonomia berriarekin lotua, frantsez terminoak duena baino. Horregatik, testu honetan diferentzia etimologiko-semanticoko horri eusten saiatu gara, nahiz eta badakizun une jakin batzuetan terminoak elkar-gainka eta nahasita dabiltzala. Guztiarekin ere, gure buruari galde diezaiokegu, ea berdin ulertzen den globalizazioa europar kulturaren (frantsesez, esaterako) eta ipar-amerikar kulturaren (ingelesez, esaterako)?

ekologikoaren eta homofobiaren aurka). Eskubideak mendebaldeko balioez gainzamatuta egon daitezke, eta horrek arazoak sor ditzake beste gizarteetan.

B- Horrela sortzen dira egun *inperatibo hiperpolitikoak*:

1- Giza xedearen beraren inperatibo kategorikoa

Kantek ondoko formula honetan laburbildu zuen inperatibo kategorikoaren izaera unibertsala: «Hortaz, bakarra eta honoko hau da: *zure ekintzaren esakunea lege unibertsal bilaka dadin nahi izateko moduan joka ezazu*».

Eta inperatiboaren unibertsaltasun horri gizakien erreinua erantsi zion, berezko xede gisa, bitarteko nahiz gauza bihurtu gabe:

«Inperatibo praktikoa, hortaz, ondoko hau izango da: *gizateria, zure pertsonan zein beste edonorenean, beti xede gisa eta bitarteko gisa inoiz ez tratatzeko moduan joka ezazu*».

Gizakiak sortutako eta gizakiari zuzendutako lehendabiziko erlijioa da. Horrela azpimarratzen zuen Marxek prezeptu materialista batean:

«Erljioaren kritika irakatsi batez amaitzen da, alegia, *gizakia dela izakirik handiena gizakiarentzat; inperatibo kategoriko batekin, gizakia izaki zitaldu, morroi, abandonatu eta doilor bihurtzen duten harreman guztiak iraultzearekin alegia* ».

Dusselenaren aurrerapen bat da hori. Hori horrela, Dusselek liberazio-printzipio batean birformulatzen du: *Inperatiboak honela dio: Askatu Beste zanpatuan modu iraingarrian tratatutako pertsona!*

2- Inperatibo ekologikoa

Kanten inperatiboa mende honetako beharren arabera eguneratu behar da. Ez du gizaki ez direnekiko, lur-inguruneke, gainerako espezieekiko eta datozen belaunaldiei utziko zaien etorkizun jasangarriarekiko harremanik zehazten. Hans Jonasek Kanten *orainaldiko giza etika* erantzukizunean oinarritutako zuhurtzia-printzipioa aurreratuko duen *etorkizuneko etika planetario* batekin berritzea proposatu zuen. Etika horren inperatiboa ondoko hau izango litzake:

Zure ekintzaren ondorioak eta benetako giza bizitzak Lurrean irautea bateragarriak izatea bermatzeko moduan joka ezazu.

Edo, ezezko esaldi gisa adierazita:

Zure ekintzaren ondorioak bizitza horren etorkizuneko posibilitatearentzat suntsikorak ez izateko moduan joka ezazu.

Edo:

Ez arriskatu gizon-emakumeak lurrean modu amaigabean irautea bermatzen duten baldintzak.

Edo: *Orain egiten duzun aukeraketan, jaso, zure nahiaren xede gisa baita ere, gizakiaren etorkizuneko osotasuna.*

Boffek honela laburbildu du:

Zure ekintzek ez Etxe Komuna, ez Lurra eta ezta bertan bizi den eta gurekin batera existitzen den hori guztia ere ez deuseztatzeke moduan joka ezazu.

Edo, bestela:

Erantzukizunez erabili eta kontsumitu ezazu behar duzun guztia, gauzek existitzen eta gure beharrei, etorkizuneko belaunaldien beharrei eta gainerako izaki bizidun guztien beharrei erantzuten jarrai dezaten, horiek ere badute-eta kontsumorako eta bizitzarako eskubidea.

Edo: *Zaindu guztia kontu handiz, kontu izateak guztiak gehiago irautea ahalbidetzen baitu, babestu egiten baitu eta segurtasuna ematen baitu.*

3- Inperatibo antitotalitarioa

Inperatibo ilustratuari eta ekoetikoari totalitarismo ororen aurkako beste inperatibo bat gehitu behar diegu. Hannah Arendtek ohartarazi zigun jadanik nola totalitarismoak Kanten inperatiboa desitxuratu zuen, Eichmannen epaiketaren kronika idatzi zuenean. Jerusalem egiten ari zitzaion epaiketan, genozida honek Kant irakurtzeko ohitura zuela onartu zuen. Orduan, fiskalak zein zentzutan zioen hori galdetu zion, eta kriminalak honela erantzun zuen:

Kanti buruzko hitz horiekin esan nahi nuena da nire borondatearen printzipioak halakoa behar duela izan, lege orokorren printzipio bilakatu daitekeela.

Arendtek adierazi zuen akusatuak, “Estatuak legeztatutako krimenen aldi hartan” -Eichmannek berak hala definitzen zuen Reicha-, aldatu egin zuela Kanten inperatiboa. Nazismoak egin zuen formulazio berriak

honela zioen:

Zure ekintzen printzipioa legisladorearen ekintzen edo lege arruntaren printzipioen berdina izango balitz bezala joka ezazu.

Hori zen Hitlerrek etika ikusteko zuen modua. Izan ere, Hirugarren Reicharen inperatibo kategorikoaren formulak, agian Eichmann ezagutuko zuen Francki zor zaionak, honela zioen:

Führer delakoak onetsiko lituzkeen ekintzak gauzatuz joka ezazu.

Hortaz, Adornok totalitarismoaren aurkako zentzua emanaz berridatzi zuen formulazio hori: *Hitlerrek inperatibo berri bat ezarri die egungo esklabutza-egoera bizi duten gizonei: beren pentsamendua eta ekintza Auschwitz inoiz ez errepikatzeke eta gauza bera inoiz ez gertatzeko moduan orientatu behar dute. Inperatibo hori arrazoitzea Kantenaren izaera faktikoa oinarritzea bezain zaila da. Diskurtsiboki tratatzea krimen bat izango litzake: bertan nabarmen bilakatzen da etikoa denak osatzen duen faktore gehigarria.*

Etorkizuneko inperatibo gisa hartu zuen:

Auschwitzekoa berriro ez gertatzea hezkuntzako exigentzia guztietan lehenengoa da.

Eta argitzen du:

Maila txikiagoan ala handiagoan loturak onartzen dituzten gizonak uneoro aginduak behar izatera iristen dira. Auschwitz printzipioaren aurkako benetako indar bakarra autonomia izango litzake, Kanten adierazpide hori erabiltzea uzten bazait; hausnarketaren indarra, autodeterminazioaren indarra, bestearen jokoaz ez sartzearen indarra.

4- Inperatibo antiglobalizatzailea

Nik, egun, ondoko hauek guztiak bilduko lituzkeen **inperatibo altermundialista** integral bat proposatuko nuke: pertsonenganako tratu duina merkatuen gainetik, planeta oinarri jasangarri batean kontserbatzea, eta inperialismoa, kolonialismoa, totalitarismoa, mota orotako diskriminazioa (arrazakoa, sexuala, erlijiosoa, klasista) baztertzea, edozein *Lager* edo *Gulag*:

Jarduterakoan, kontuan izan gizakiak (emakumeak eta gizonak) helburu gisa tratatu behar direla, eta ez bitarteko gisa; izaki libre gisa tratatu behar direla, eta ez izaki zanpatu eta zital gisa; planetako bizitzak etorkizunean ere irautea bermatuz eta Auschwitz, edo Kolymá, edo Hiroshima, edo Gernika, edo Bhopal, edo Chernobyl, edo Guantanamo, edo beste edozein sarraski-eremu edo giza bizitza suntsitzeko leku oro berriro gertatzea eragotziz.

Kantek ilustrazioaren maxima gisa utzi zuen ondoko formula hau:

Arrazoitu nahi bezain beste eta, batez ere, gogoko duzuen bezain beste, obeditzen duzuen bitartean...!

Alterglobalizazioak, berriz, ondoko hau postulatzten du:

Desobeditu nahi bezain beste eta, batez ere, gogoko duzuen bezain beste, arrazoitzen duzuen bitartean...!

* Testu honek alterglobalizazioari eta hiperpolitikari buruzko ikerketa zabalago bat osatzen du.